

«ISASTI, GAINZA ETA OTSOA LEZOAR SEME OSPETSUAK»

Herri guztiek beren pertsonaiak dituzte, herri horien izate historikoan modu batean edo bestean nabarmendu egin direnak. Lezok baditu Lezo barruan edo Lezotik kanpo, oso pertsonaia ospetsuak izan direnak. Azken garaietakoak soberan ezagutzen ditugunez, ekarri nahi izan ditut lerro hauetara garai zaharretako hiru pertsonaia: Lope Martinez Isasti, Frantzisko Gaintza eta Eugenio Otsoa, beraiek izan bait dira nire uste apalez, Lezok garai haietan eman zituen hiru kultur-gizon aipagarrien eta haundienak.

1.- LOPE MARTINEZ ISASTI



Lope Martinez Isasti

Lezon jaioa da 1.560 edo 1.570 urtean, (gaur ez bait da xiurtzat hartzen), Errenteriatik etorritako familia batekoa baina Lezo-Haundia etxean finkatua. Bere leinuan bestelako pertsonaia ospetsu gehiago ere izan dira: ONOFRE NAGUSIA («El Mayor»), Loperen aita izan zena, Ofizio Santuko familiarra, Administrazio Publikoan karguduna, 1.600. urtean hil zen. ONOFRE TTIKIA («El Menor») Santiagoren Ordenako zalduna, Erregeren untzi eta galeoietarako Hornizio eta Materialen gordelari eta zaindari, 1.612. urtean zendu zena; eta JOANES PASAIAKO Errege Untzigintzako komisarioa, 1.624. urtean hil zen Lezon.


Nahiz eta bere familia untzigilea izan, Lopez Martinez Isasti apaiza izan zen, Teologian doktore, San Joan Bataiatzailearen Parrokiako benefiziatu eta presbiteroa, idazle eta historiagile ospetsua, bere idazlanik famatuena hauek direlarik:

- a) «Compendio Historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa» 1.620 inguruan idatzia, baina bere garaian argitaratzeko baimenik jaso ez zuenez, 1.850 urterarte kaleratu ez zena. Oso liburu mardul eta oparoa. Historiaren aldetik hutsuneak begibistakoak dituen arren, datu interesgarriak eskeintzen dizkiguna: garaiko ohiturak, gertaerak, euskal atsotitz zaharren bilduma,...

- b) «Relación que hizo el Doctor D. Lope de Isasti, presbítero y beneficiado de Lezo, que es en Guipuzcoa, acerca de las malélicas de Cantabria por mandato del Sr. Inquisidor Campofrío de Madrid» izeneko esku-idatzia. Bere erderazko izenburuak esaten digun bezala, Inkisizioak eskaturiko Euskal Herriko sorginei buruzko txostena. 1.618.ean idatzi zuen eta gaur Madrileko Liburutegi Nazionalean gordetzen dena.

2.- FRANTZISKO GAINZA

1.658.eko azaroaren 7an jaio zen Gaintxurizketan dagoen «Endara» baserrian (gaur «Gaintza» izenez ezagunagoa dena). Apaiza sarturik, Irungo Parrokia-ko erretore izendatu zuten eta hortik aurrera bertan aritu izan zen eskribau, idazle eta historiagile gisa. Bere bizitzaren inguruko zenbait berri badaude, bere testamentua horietako bat delarik. Badirudi ere, herentzia bat zela eta, bere arrebak moja sar erazi zituela. Aipaturiko ekintza eztabaidagarria izan bazen ere, eztabaidagarriagoa oraindik suertatu zaigu bere liburua: «Historia de la Universidad de Irun-Uranzu, probando con el Rmo. Euriditísimo Eno, ser el pueblo que corresponde en Cantabria, al Antigo lugar de Iturisa, señalado para marca por los geógrafos Ptolomeo y Mela a la posteridad» izen laburrekoa, bertan Irun-Uranzu, aintzinatean Ptolomeo eta Mela geografariak seinalatutako «Iturisa» izeneko hiriska zela frogatu nahi izan bait zuen.




Frantzisko Gaintza

Liburu hau Iruñean argitaratu zen 1.730. urtean, Martin Frantzisko Pikart-en inprimategian. Ez da liburu makala, 255 orriz osaturik bait dago. Hasieran Gipuzkoako Aldundiari eskeinitako sarrera, eta baimena ematen zuten eliz kargugizonen oharkizunak irakur daitezke, eta ondoren 26 ataletan banaturiko idazlan trinko eta aberatsa.

3.- EUGENIO OTSOA

Literaturgile ospetsu hau Lezon jaio zen 1.815. urtean eta Madrilen hil zen 1.872.ean. Bere ikasketak Madrilen burutu zituen, San Mateo ikastetxean, bertan Alberto Listaren ikasle eta Espronceda eta beste idazle famaturen laguna izan zelarik. Bere pintura zaletasunak Parisera eramane zuen, eta Arte eta Lanbide Eskolan egin zituen bere pintura ikasketak. 1.834.ean Madrilerantz itzuli zen eta hiru urtetan «La Gaceta»-ren erredakzioan kolaboratu zuen. 1.837. urtean Parisera joan zen berriro ere, eta 1.838.etik «Colección de los mejores autores españoles antiguos y modernos» izeneko bilduma zuzendu zuen. Frantziako hiriburuan idatzi zuen: «Apuntes para una biblioteca de autores españoles contemporáneos en prosa y verso», 1.840ean argitaratu zena. Lau urte beranduago, eta erret eskariari jarraituz, argitaratu zuen: «Catálogo razonado de los manuscritos existentes en la Biblioteca Nacional de Paris»



Eugenio Otsoa

norenak tartean zeudelarik. Bere itzulpenen artean, Virgilioren lan guztiak ikus daitezke. Espainiar Hizkuntzaren Akademiako partaidea izan zen, Espainiako Liburutegi Nazionaleko liburuzaina, Instruzio Publikoko zuzendaria, Estatu Kontseiluaren partaidea eta Huescako gobernadorea.

Euskal idazle ospetsu eta oparoa dugun Patri Urkizu lezoar semeak, honela idatzi zuen, herriko alkatea izanik, 1.982.eko Mendekozte Jaietarako argitaratu zen egitarau liburuxkan, zenbait pertsonaia lezoarren berri emateko egindako «Lezoko kale izendegiaz zenbait ohar» izeneko artikulua barruan: «Jite arras liberaleko gizona, Eugenio Otsoa da seguraski, Lezoko herriak eman duen intelektual mailarik gorenekoa».

izeneko katalogo zabala eta aberatsa. 1.844.ean Madrilera boltatu zen, eta bere kuinatua zen Pedro Madrazorekin batera, «El Artista» izeneko aldizkari errromantikoa fundatu zuen. Itzuli zituen espainerara Victor Hugo, Alejandro Dumas (aita), Lamartine,... eta sona haundiko beste frantses idazleen liburuak.

Elaberrigintza landu zuen, «Auto de Fe» (1.837), olerkigintza: «Ecos del alma» (1.841), eta antzerkigintza, «Un día del año 1.833» (1.835) eta «Tesoro del teatro español», biografia, hitzaurre eta ohar ugariekin batera. Idazle Espainiarren Liburutegian idazlan franko sortu edota zuzendu egin zituen, Sebastian Miñanorenak tartean zeudelarik. Bere itzulpenen artean, Virgilioren lan guztiak ikus daitezke. Espainiar Hizkuntzaren Akademiako partaidea izan zen, Espainiako Liburutegi Nazionaleko liburuzaina, Instruzio Publikoko zuzendaria, Estatu Kontseiluaren partaidea eta Huescako gobernadorea.

JOSEBA ZABARREKO

